

**2025EKO OÑATIKO JAI NAGUSIAK ELKARLANEAN ANTOLATZEKO
OÑATIKO UDALA ETA TXINPARTA BERTSO ESKOLIAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan, bi alde hauek **BATU** dira:

Batetik, IZARO ELORZA ARREGUI andrea, Oñatiko Udaleko alkatea, Udal korporazioaren izenean (NAN: **3963**G/ Helbide Soziala: Oñatiko Foruen Enparantza1).

Bestetik, JOSEBA LASAGABASTER MADINABEITIA jauna, Txinparta Bertso Eskoliaren (G75144972) izenean aritzeko gaitasuna duena (NAN: **4552**S / Helbidea soziala: San Lorentzo auzoa).

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko nahikoa gaitasun aitortu diote elkarri egintza honetan ordezkatzeko duten erakundearen izenean hitzarmen hau izenpetzeko, eta honako hau **ADIERAZTEN DUTE** :

I.- Eskumenak. Oñatiko Udalak hainbat eskumen ditu kultura-jarduera eta instalazioen arloan, indarrean dagoen legeriaren arabera, bereziki Toki-araudiaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluko 20 atalean xedatutakoaren arabera.

II. Nortasun Juridikoa. Bi aldeek aitortzen dute Txinparta Bertso Elkarte (G75144972) zuzenbide pribatuko elkarte dela, Eusko Legebiltzarrak onartutako Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera sortua, irabazteko xederik gabekoa. Era berean, aitortzen dute Txinparta Bertso Elkarteak ez duela inolako mendekotasunik Oñatiko Udaleko aginte organoekin, ezta lan harremanik ere.

III. Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003ko Lege Orokorra garatzeko eta 887/2006 Errege Dekretuaren 55. Artikuluak xedatutakoaren arabera; diru laguntzak emateko ohiko prozedura lehiaketa bidez ematea izango da. Hala ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, bere 22. artikuluan ezartzen du (22.2.c atala), salbuespen izaerarekin, zuzenean

eman ahal izango direla diru-laguntzak beti ere honako arrazoiak egiaztatzen direnean: **interes publikoa, soziala**, ekonomikoa edo humanitarioa izatea edo deialdi publikoa zailtzen duten bestelako arrazoiak.

IV. Interes publikoa (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra. 22.2. C atala):

Oñatiko Jaiak 2025eko markoaren baitan, Udalarekin elkarlanean, herriko Elkarteen jaietako jarduera kulturalen garapena edo/eta ekitaldi zehatzak antolatzea, herriko jaietan herritar guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

V. Oñatiko Udaleko 2025erako aurrekontuetan, diru laguntza zuzena eta izenduna aurreikusi da Txinparta Bertso Elkartearen alde, "San Migel eta Errosarixo jai nagusietan" kultur egitasmoak sustatzeko.

Diruz lagunduko den egitasmoa: Urriak 6ko, igandea, dataz antolatuko den " Balkoitik-balkoirako bertso saioa " antolatzea eta gauzatzea.

VI. Eskumenak.

Oñatiko Herriko jai nagusietan Txinparta Bertso Elkartek garatuko dituen jarduerak —diru laguntza honen xede direnak— Oñatiko Udalaren diru laguntzak emateko eskumen alorraren barne daude

Dirulaguntzak eman nahi dituzten Udalek onartzen dute beraien Plan Estrategikoa (38/2003 8.1.art. Oinarrizko izaera duena). Bertan, Planarekin lortu nahi diren eraginak eta helburuak zehazten dira.

Oñatiko Udalak, 2022-10-11ko Alkate Dekretuz 2023-2026ko Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzen du. Plan Estrategiko honek, besteak beste, bere 5.artikuluaren 5.4. puntuan 14 jarduera lerro estrategiko jasotzen ditu . Diru laguntza honi lotzen zaion lerroa 7.erro estrategikoa da: kulturaren dinamizazioa: " Udalerriko jaien antolaketa dinamizatzea, eta hauetan ekintza herrikoiak antolatzea" . Sinatu nahi den lankidetzaren hitzarmen hau, zazpigarren estrategia honekin lerrotzen da.

VII. Oñatiko Udalak eta Jai nagusietan parte hartuko duen Txinparta Bertso Eskolako ordezkariak elkarrizketak izan dituzte lankidetzaren sistema ezarri eta bermatzeko.

VIII. Aurreko guztia kontuan hartuta, lankidetzaren hitzarmen hau izenpetu da klausula hauen arabera:

ADIERAZPENA

Bi aldeek hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute eta hau guztia kontuan izanda, eta alde bien onurarako izango denez, honako hitzarmen hau **HITZARTZEN DUTE:**

LEHENA: Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen xedea da:

.-2025eko Oñatiko Herriko jai nagusietan, Udalarekin elkarlanean, elkarrekin, partaidetza mantendu, suspertu eta indartzen laguntzea, jaietan herritar guztiak parte hartzeko aukera izan dezaten.

.-Oñatiko jaietan parte hartuko duten irabazi asmorik gabeko elkarrekin, talde antolatuen jaietako kultur jarduerak diruz laguntzea, jaien antolakuntzan jardueren garapena edo/eta ekitaldi zehatzak burutzeak sortzen duen defizita arintzeko asmoz.

.-Diru laguntza hau arautzea.

BIGARRENA: Laguntzaren zenbatekoa eta kontu-saila.

.- Hitzarmen honen lehen klausulan adierazitako helburua gauzatzeko, gastuen finantzaketan laguntzeko helburuarekin, Oñatiko Udalak sei ehun euro (600€) ordainduko dizkio Txinparta Bertso Eskolari diru laguntza izendun gisa.

.-Hitzarmen honen xede den diru laguntzetarako, kreditu egokia eta nahikoa ezarri da 2025 urteko Udal aurrekontuetan. Ordainketa 0800.481.338.04.02. 2025 (5771) partidaren eta haren lotespen-mailaren barruko kredituen kontura egingo da.

HIRUGARRENA: Hitzarmenaren iraupena.

Hitzarmenak urte bateko (2025) iraupena izango du.

LAUGARRENA: Ordainketa modua.

Diru laguntza **zati bakarrean** ordainduko da:

- Diru laguntza-eskaera onartutakoan, %100: seiehun euro (600 €).

Diruz lagundutako jardueraren izaerari zuzenean lotutako gastuak aurkeztu beharko dira, jarduerak egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sortutakoak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

BOSGARRENA: Likidazioa eta epea.

Diru laguntza zuritzeko epe muga: Azaroak 7, ostirala.

Diru laguntza zuritzeko irizpide hauek kontuan hartuko dira:

Memoria ekonomikoan, gutxienez, jarraian zerrendatzen diren agiriak aurkeztu beharko dira.

Memoria ekonomiko hau gastu-sarreraren laburpen taulan jaso beharko da. Horretarako, Oñatiko web orrian eskuratu ahal izango den, gastu-sarreraren balantze orokorreko eranskina aurkeztu beharko da.(www.oñati.eus).

Gastuak

Diruz lagundutako jardueraren izaerari zuzenean lotutako gastuak aurkeztu beharko dira, jarduerak egiteko aurreikusitako epea amaitu baino lehen sortutakoak. (Azaroaren 17ko 38/2003 Legea).

1. Jai Nagusietan antolaturiko jarduerak jasotzen dituen eta bakoitzarengandik ordaindutako prezioa adierazita.
2. Gastuen barruan ere sartu ahalko da:

Diruz lagunduriko jarduerarekin bat datozenak; alegia, 2025.urteko Oñatiko herriko jai nagusien antolaketarekin bat datozenak , hala nola: jarduera sustatu eta hedatzeko programak, jaialdiak, folklorea, gastronomia, herri kirolak, ikus entzunezkoak, arte

plastikoak, erakusketak eta abarrekin zerikusia dutenak eta jaietan finkaturiko epeen barruan gauzatzen direnak (irailak 21etik urriak 8, biak barne).

Beti ere, Azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, 22.2.C atala xedatzen duenarekin bat etorritz gero; hau da, onura publikoa edo interes soziala edo helburu publikoa duten jarduerak sustatzea edo bultzatzearekin zerikusia dutenak .

Likidazioaren gastuak zurrizko onarturiko zurigarriak, baldintza hauek bete beharko dituzte:

Fakturak.

Informazio fiskala osoa jaso behar dute; hau da, ematen eta jasotzen duenaren identifikazioa (izen deiturak, NA edo NFK, helbidea), faktura zenbakia, data eta BEZ.

Faktura sinplifikatuak.

Salbuespen modura, enpresa-buruak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek noiz edo noiz egindako jardueretan, adostutako ordainsariaren zenbatekoa erakusten duen hartze-agiria aurkeztea onartu ahal izango da, jasotzailearen identifikazio-agiriaren kopiarekin batera Ordainsaria 400€-koa baino gehiagokoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe-kontuan ordainketa egin izanaren ziurtagiria aurkeztea.

Bazkari/afari gastuak:

Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan: bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuen kostuak, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dutenekin sortutakoak izan ezik; eta hala denean, egindako gastuaren eta lortu nahi den helburuaren arteko proportzionaltasuna gorde beharko da. Hala ere, salbuespen izaeraz, Udalak, dagokion akordioaren bidez espreski onartu ahal izango du aipatu gastu kontzeptuak. (Oñatiko Udalak emandako diru laguntzak kudeatzeko Ordenantza Orokorra- GAO, 2009ko otsailaren 10ean, 19.2 art).

Zuriketa bezala onartuko diren dokumentuak: fakturak, faktura sinplifikatua, auto faktura eta/edo jaso izanaren agiriak.

Diru-sarrerak:

SINAF024bE17-05bd-45c2-8439-668d60bfa559

1. Lorturiko diru-sarrerak, zein kontzeptuen bidez lortu diren adieraziko da (publizitatea, herri-bazkaria, salmentak, diru laguntzak,..) bereizita.

Horrez gain, Udalak Diru laguntzei buruzko Lege Orokorrak 38/2033 legeak 30. eta 31. artikuluetan araututakoaren arabera, beharrezkoak diren dokumentuak eskatzeko aukera izango du.

SEIGARRENA: Elkartearen betebeharrak Udalarekiko.

Antolatzaileak, hitzarmen honetako gainerako puntuetan adierazi eta onartutakoez gain, konpromiso hauek hartzen ditu Oñatiko Udalarekin:

6.1. Diru laguntza itzultzea. Jasotako zenbatekoen erabateko itzulera edo itzulera partziala burutu beharko da hitzarmen honetan aurreikusitako baldintzak edo organo eskudunak ezarritako justifikazio betekizunak betetzen ez badira; bai eta diru laguntzen Lege orokorraren 37.artikuluaren eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan ere. Kasu honetan, diru laguntzaren onuradunak Oñatiko Udalaren aldeko banku transferentzia bat burutu beharko du. Diru sarreraren zehaztu beharko dira: diruz lagunduriko jarduera, espediente zenbakia eta onuradunaren identifikazio datuak.

6.2. Elkartea diru kontuen ikuskaritza edo auditoretza egitera behartuta balego edo/eta Udalak edo Administrazio batek hala eskatuko balio, derrigorrez jarri beharko ditu ikuskaritzaren esku (Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14.1c) eta f) artikulua).

6.3. Elkarreak erantzukizun osoa izango du jardueraren antolaketan eta horien garapenean gerta daitezkeen ezbehar, istripu eta bestelako gertakizunen aurrean, bai Udalarekiko eta baita hirugarren pertsonetik ere, pertsona fisiko zein juridikoa izan, izaera publikoa zein pribatua izan. Elkarreak antolatzen dituen jarduerari dagokion erantzun zibileko aseguru kontratatu beharko du (kapital minimoa 150.000 eurokoa izango da), eta aseguru hori kontratatu duela egiaztatu. (44/2014 Dekretua, martxoaren 25ekoa).

6.4. Oñatiko Herriko jai nagusietan Elkarreak antolatzen dituen jarduera guztietan istripuen prebentzioaren arloan indarrean dagoen legedia beteko du (4/1995 Legea, azaroaren 10ekoa, ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak arautzekoa).

6.5. Diruz lagunduko diren jarduera guztiak gauzatzeko beharrezko baimenak eskatu beharko ditu.

6.6. Elkarreak emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sustatuko du bere osaeran, bai jaien inguruan antolatzen diren ekintzetan, bai jai-programa osatzeko egiten diren kontratuetan. Jaietako jarduerak emakume eta gizonen interes eta beharretara egokitzea bilatuko da. Jai Elkarreak neurriak ezarriko ditu erabaki guneetan emakumeen edo gutxiegia ordezkaturako kolektiboen parte hartzea bermatzeko.

6.7. Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Arautegiak dioena kontuan hartuta, antolatzaileak konpromiso hauek hartzen ditu bere gain hitzarmen honen baitan: Jai egitarauko jarduera guztietan, euskara erabiliko da ahoz nahiz idatziz. Auzoko Jai Elkarrearen kanpoko zein barneko komunikazioetan euskara erabiltzea ziurtatuko da. Euskararekin batera gaztelania ere erabiltzen den kasuetan, euskarari emango zaio lehentasuna.

6.8. Diru laguntza ezingo da ordaindu onuradunak zerga ordainkizunetan (Foru Ogasuna eta Udal biltegia) eta Gizarte Segurantzaren aurrean egunean dagoela egiaztatu arte. Onuradunak egiaztatze- ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu , Udalari hori egiaztatze baimena ukatu baldin bazaio edo NISAE nodoaren bidez – elkarreragingarritasun zerbitzuen katalogoan kontsulta ezin bada egin.

NISAE nodoaren - administrazioen segurtasunerako eta elkarreragingintasunerako nodoa- bidez , Oñatiko Udalak beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu diru laguntzaren tramitazio administratiboa egin ahal izateko interesdunek administrazioaren esku jarritako datuei buruz. Horretaz gain, euren jarduerak Kulturaren eskumenen arloan egiten dituzten irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkarreentzako diru laguntzaren tramitazio administratiboa egiteko beharrezkoak diren egiaztapen guztiak ere egingo ditu. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen bada ; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu (Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua).

Aipaturiko egiaztagiria baliodunak izango dira ematen diren egunetik eta hurrengo sei hilabeteetarako. Diru laguntza jasotzen duen kontzeptu bakoitza benetan ordaintzen den unean egiaztagiria eman zen egunetik sei hilabete igarota egonez gero, organo emaileak zuenean eskuratuko du ziurtagiri berria edo baimena eman ez duen entitate/onuradunak berriro aurkeztu beharko du egunean dagoenaren egiaztagiria.

6.9 Jasotako funtsak itzuli aplikagarri den legedian aurreikusitako kasuetan.

7. Hitzarmen hau egiteko arrazoia den jokabideari eustea.

ZORTZIGARRENA: Udalaren eskumena.

Udalari dagozkio honako eskumenak:

Hitzarmena interpretatzea, hura betetzean sor daitezkeen zalantza kasuetan erabakitzea, interes publikoak eskatuta aldatzea, bertan behera uzteko akordioa hartzea eta horren ondorioz zehaztea, legez (Apirilaren 18ko, 781/1986 Erret. Dekretu legegilearen 114.artikulua) ezarritako mugen baitan eta beti ere han jasotako baldintza eta ondorioei lotuta. Hartutako erabakiek administrazio bideari amaiera emango diote eta bat-batean bihurtuko dira betearazle.

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmenaren haustea.

Elkarteak hitzarmenean jasotako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, Udalak hitzarmena bertan behera utz dezake, eta onuradunak diru laguntza itzuli beharko du.

Hitzarmenak izaera juridiko-administratiboa duenez, hitzarmen hau aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren mende jarriko dira.

HAMARGARRENA: Araubide juridikoa eta jurisdikzioa.

Hau izango da legeria aplikagarria:

Hau izango da egitasmoetan bete beharreko legeria aplikagarria:

- a) 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas jarduerak Arautzen dituenak.
- b) 44/2014 Dekretua, jolas-jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzunkizun zibileko aseguruiei buruzkoa.
- c) 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena

- d) 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikorena.
- e) 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru Laguntzen Lege Orokorra.
- f) 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duena.
- g) Oñatiko Udaleko Diru laguntzen Ordenantza Orokorra (OB: 2009-01-29).
- h) Oñatiko Udaleko Diru laguntzen Plan Estrategikoa (2022-10-11ko Dekretua).

Hitzarmenaren klausulak banan-banan irakurri ondoren, bi aldeek erabateko adostasuna adierazten dute eta agiri hau oso-osorik onartu. Eta hala jasota gera dadin, eta behar diren ondorioak izan ditzan, hitzarmen hau sinatzen dute.

Oñatin, sinadura digitalean agertzen den datan,

Oñatiko Udalaren izenean,

Izaro Elorza Arregi, Alkatea.

Txinparta Bertso Eskolia Elkartearen
ordezkari gisa,

Joseba Lasagabaster Madinabeitia



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Jaiak 2025: Txinparta Bertso Eskolia hitzarmena.

CSV/EKS:

SINAf024bf17-05bd-45c2-8439-668d60bfa559